Dantzari Aplikatutako Musika II

Ikasgaia: Dantzari aplikatutako musika eta soinu-hizkuntzak

Kurtsoa: 2

Kreditu kop.: 3

Deskribatzaileak:

- Oro har, musikaren eta arte eszenikoen eta, zehazki, musikaren eta dantzaren arteko erlazioa.
- Musika- eta soinu-hizkuntzen oinarrizko ezagutzak, musika- eta soinu-egitura baten osaera ulertzea ahalbidetzen dutenak interpretazioan eta konposizio koreografikoan aplikatzeko.
- Dantzatuak izateko konposatutako musika-lanen berariazko ezaugarriak.
- Soinu-laborategiko aukerei eta musika garaikideari buruzko oinarrizko ezagutzak.
- Soinu-edizioko eta -manipulazioko programak erabiltzea, besteak beste.

Oharrak: Dantzari Aplikatutako Musika I eta II irakasgaiek bi ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

Konpetentziak:

- Entzumen-, erritmo- eta melodia-gaitasunak garatzea musika-hizkuntzako elementuen ezagutza praktikoaren eta teorikoaren bidez.
- Musika-printzipioak (erritmoa, melodia, armonia, etab.) eta diziplina eszenikoekiko (interpretazioa, eszenaratzea, dantza) horien erlazioa eta aplikazioa ezagutzea.
- Musikaren fenomenoa ulertzea azterketa-, sorkuntza- eta interpretazio-prozeduren bidez.
- Musika- eta soinu-egitura bat ulertzea interpretazioan eta konposizio koreografikoan aplikatzeko.
- Dantzatuak izateko konposatutako musika-lanen berariazko ezaugarriak ezagutzea.
- Soinuaren edizioko eta manipulazioko oinarrizko ezagutzak bereganatzea.